

3. FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Negozio-eredu jakin batek funtzionatzea ahalbidetzen duen hornitzaile eta bazkide sarea da.

Enpresa batek aliantzak sor ditzake beste enpresa batzuekin hainbat arrazoi direla medio: negozio-eredua optimizatzeko, arriskuak murrizteko eta baliabideak eskuratzeko, hain zuzen ere.

- **Zein dira behar dituzuen bazkide eta hornitzaile nagusiak zuen proiektuak funtziona dezan?**

Gure enpresaren garapenean beharko ditugun bazkide eta hornitzaile nagusiak, gure produktuen ekoizpena bermatzeko beharrezkoak diren lehengaiez zuzkitzen gaituzten enpresak izango dira. Horrez gain, online bidezko kanal bat bideratuko genuke. Hemendik eskaerak egiteko edo bazkide bihurtzeko aukera emanez.

- **Zergatik dira garrantzitsuak guretzako?**

Gure enpresaren ekoizpena ahalbideratzen dutelako eta lehengaien kalitateak, produkzioaren kalitatean ere ondorioak izango ditu.

